

Euskadi Sariak



Jon Alonso

Idazlea

Sariak

Sariak toki nabarmena betetzen dute edozein literaturatan. Baina literatura handi batean (batzuetan ‘normal’ deitzen dugun horietako batean, begiratzen hasi eta agian hain normalak ez diren arren) beren garrantzia erlatiboa da, hizkuntza boteretsu baten sistema literarioak badi-tuelako idazlea saritzeko beste mekanismo batzuk. Konparaziorako, inon saritu ez duten idazle batek eduki dezake, bat-batean, ehun mila irakurle edukitzeko saria. Sistema literario txikiagoetan, ordea, sariak bestelako garrantzia hartzen dute, askotan bizirauteko posibilitate ekonomikoa bera –idazleena eta are argitaletxeena ere–, neurri handi batez, sarietan baitago, horrelako sistemetan irakurleak urri izaten direlako, hain zuzen. Kontua ez da merkatuaren legea goratzea, merkatuak benetan aukeren berdintasuna, lehia garbia eta kalitatea bermatuko balitu bezala, beste hau baik: aintzat hartzea literatura handi bateko idazleak bide bat baino gehiago eduki dezakeela bere sormen-gaitasuna gartzeko; eta ulertzea zein den gurea bezalako sistema batean sariak har dezaketen garrantzia.

Sariak (II) Oh! Euzkadi

Publierreportaje eder batek gogorazai berri digu EHU-UPVk martxan ipini duela egitasmo guztiz interesgarri bat, ZIO izeneko, zientzia mailako dibulgazio-testuak euskaratzeko. Oso ongi dago, zinez; eta oso ongi pentsatua. Bi hodeik lausotu didate begia une batez, ordea: ZIO bultzatzen dutenek aintzat hartu al dute orain arte, publierreportajerik gabe baino ahalegin esker txarreko, iraunkor eta luzeaz, EHU-UPVtik bertatik, dibulgazioaz arduratu direnen iritziak? Bigarrena: publierreportajeak esaten zuenez, “elitezko itzultzaile talde batek” egin ditu itzulpenak, eta, itxura guztien arabera, Euskadi Saria, itzulpen alorrean, irabazi izana omen zen itzultzaileei eliteizaera hori ematen ziena. Esaten ari al

zaigu, ausaz, Euskadi Saria irabaztea lehiaketa publikorik gabe banatzen diren hainbat lan eskuratu ahal izateko baldintza dela? Halako zer edo zer gertatu zen Pio Barojaren urjentziako itzulpenak (badakizue, On Pioren heriotzaren urteurrena zen eta zerbait itxuroso egin beharra zegoen) adjudikatu zirenean.

Gauza larria litzateke, oso larria; eta larria, ikuspuntu profesional huts batetik; zenbait lanetarako sarrera ukatuko litzai-gukeelako itzultzaile gehien-gehienoi, Euskadi Saria irabazi ez dugun guztioi, zehatz esateko. Itzultzaile profesionalen elkarte baten bidez salatze moduko arazo larria litzateke, inondik ere. Baina noren bidez salatu, Euskal Herriko itzultzaileen eskubideak defendatzeko sortu omen zen EIZIE izan bazen, hain zuzen, Pio Barojaren kasuan, lanak banatzeko modua ontzat eman zuena? Noren aurrean kexa egin, EIZIEn pisu handia eduki duten itzultzaileak badaude ZIO izeneko proiektu horren atzean?

Sariak (III) Euskadi Sioux

Sariak ustel, uher, zikin, injustu eta nazkagarri direlako begi-bistakoa da, edozeinek daki, topiko bat da. Eta bai.

Hala ere, sari guztiak ez dira berdinak. Badira sari onak, erdipurdikoak eta txarrak. Eta sari ona izateak ez du esan nahi, nahitaez, diruz ongi hornitua izatea. Sariak, ona izateko, prestigioa eduki behar du, eta prestigioa ez da beti eurotan neurtzen. Badira beste ezaugarri batzuk sari bat on bihurtzen dutenak: argitalpen duin baterako bidea izatea, epaimahiaren jokamoldea zintzoa izatea (jakinik ere erabateko inpartzialtasuna ezinezkoa dela, eta inori ezin zaiolako eskatu bere erabakietan beti asmatzea), ildo eta irizpide garbi batzuei segitzea, eta beste hainbat.

Sari gehienetan, guztietan ez esateagatik, beti sartzen dira sariaren helburutik kanpoko gorabeherak, azken erabakian pisua izaten dutenak. Ez da egia, ordea,

denek partzialtasun, arbitrariotasun, eta irregularitate neurri bat daukate-nez, berdin ustelduta daudelako ideia faltsua, eta faltsua ez ezik, askotan interesatua. “Kulparik ez duenak lehen harria bota dezala” tipoko esaldietan babesten denak, gehienetan, zuribideak agortu zaizkiola baizik ez du erakusten. Aurrekoaren bertsioztat jo litekeen beste honek, esaterako, “Zuk euro bat lapurtu duzu, eta nik milioi bat; beraz, ez kexatu, biak lapurrak gara” esaldiak, meritu hirukoitza dauka: zuribideak agortu direla salatu ez ezik, inori aurpegira tonto deitzeko meritua, eta norbera forajido bat dela erakustekoa.

Uste dut, gero etorriko dena hobeki ulertzeko, irakurleari jakinarazi behar diodala zein den nire posizio pertsonala auzi honetan: niri dagokidanez, ez naiz sentitzen sariak bereziki gaizki tratatua; onak, txarrak eta erdipurdikoak irabazi ditut –‘galdu’ ere bai, noski–. Sariak irabazteak, edo ez, aspalditik oso gutxi esaten dio nire banitateari, eta sari bat erabakitzen denean eragin ekonomikoa edo profesionala baizik ez zaizkit burura etortzen. Baliteke norbaiti jarrera hau zekena eta are zinikoa iruditzea; baina urteak aurrera, bizi izandakotik begiraturik, nekez

eusten ahal zaio beste edozein jarrerari.

Euskadi merezi zuen

Orain arte esandako guztiaren ondorio lojikoaz, sarien erabakiek askotan pizten dituzte eztabaidak eta haserre-ak. Epaimahikoez ez dute beti asma-tzen; are gutxiago norberaren gustua-ren arabera erabakitzen.

Inoiz inoiz salbuespen bat gertatzen da, aurten Euskadi Sariarekin, itzulpenaren sailean, gertatu den bezala. Ez dut uste inor ausartuko denik ezbaian jartzen Xabier Olarraren sariaren justizia; eta egia esan, inor ausartuko balitz, gorriak ikusiko lituzke bere argudioetan sen txarra ez den beste zerbait dagoela demostratzeko. Ikus dezagun: itzulpen mordo bat egin duen itzultzaile saiatua, beti maila onean, oso onean ez denean; are, arrisku pertsonala hartu duena itzulpena baizik argitaratzen ez duen argitaletxea sortzeko; argitaletxearen magalean itzultzaile sarea lanean ipini duena; aurten, literaturaren panorama gaur egun dagoen obra bitxiene-tako eta bakanetako bat airoso euskaratu duena (egitea bera gutxi ez zela); hori gutxi balitz, aktore batzuk impli-katu eta luxuzko aurkezpen batzuk antolatu dituena...

Hori guztia saritzeko ez bada, esango didazue zer egin behar den sari bat merezi izateko.

Nik bi ‘baina’ ikusten ditut bakarrrik, ikustekotan: bat, Xabier Olarrak aspaldi merezi zuela bere lanaren aitortpena. Eta bi: Olarrak Euskadi Saria merezi duela garbi egonik, zalantzazkoagoa dela Euskadi Sariak Olarra bezalako irabazle bat merezi ote duen.

Agur Euskadi

Nik omenka baizik ez nituen ezagutzen Euskadi Sarian egiten diren tropeliak. Anekdotak ikaragarri samarrak entzunda nengoen; baina hori, entzunda, eta horrelakoetan ez dago beti fio izaterik. Orain lau urte Itzulpen sariko epaimahaikide izateko aukera eduki nuen, baina ezetz esan nuen; orain hiru urte, ordea, berriz egin zidaten gonbitea, eta nire artean pentsatu nuen, ze arraio, goazen eta ikusiko dugu hainbestetarako den. Aitortuko dut udaberriko goiz eder batez mendian buelta bat egitera doanaren antzeko jarreraz joan nintzela. Okerra, oker handia.

Epaimahaikideak bost ginen, gehi botorik ez zeukan Lakuako kultur funtzionario bat, idazkari aritzen zena. Lehen bilera maiatza-ekainean



izango zen, hor nonbait. Iristerako, aurreko urtean egindako itzulpen guztien zerrenda bat paratu ziguten sudur aurrean. Ez dakizue zenbat produzitzen den, aizue! Funtzionarioak azaldu zigun lehen bilera hartan egin ohi zena lehen aukeraketa moduko bat-edo zela. Alegia, hogeai, hogeita hamar, gehienez ere berrogei liburu aukeratu behar genituela ehunka liburu horietatik. Posible da horrelakorik egiterik? Posible da. Besterik da nola.

Ez dut esango lehen aukeraketa hartan geratu ziren hogeitabost-hogeita hamar liburuak azalen kolorearen arabera aukeratu genituenik. Bai, ordea, nik dakidanez inon idatzita ez dauden baina 'esan gabe doa' moduko batez onartuta dauden irizpideen arabera egin zela; konparazione, aski lojiko bide zen haurren liburuen itzulpenak, zer esanik ez itzultzailea ezaguna ez bazen eta orri-kopurua txikia bazen, eta argitaletxea oso garrantzizkoa ez bazen, alde batera uztea. Inork orri bakar bat ere irakurri ez bazuen ere. Eta horrela. Aukeraketa egin zen eta beste bilera baterako geratu ginen, uztailaren hasieran, lehen galbahe hori pasatu zuten liburuen artean finalistak aukeratzeko.

Nik ez dut esaten irizpide horiek gaizki daudenik. Ez ongi daudenik ere; esaten dut, ordea, hori hala bada, komeniko litzatekeela kontua nonbait argi adierazita uztea. Eta esaten dut, baita ere, benetan saria prestigiozkoa eta ganorazkoa izatea nahi bada, ongi legokeela, urtean zehar, ateratzen diren itzulpenen segimendua egitea. Nola? Moduak egon daitezke, zalan-tzarik gabe, horretara jarritz gero: jarraipen-batzordeak antolatzea, izatez dauden irakurle-taldeak horretarako baliatzea... Jakina, ahalegina eskatuko luke horrek; giza-baliabideetan eta baliabide materialetan. Baina helburua ez al da saria, diruz ongi hornitua egoteaz aparte, prestigiozkoa ere izatea? Doktoreak dauzka eliza amak. Zertarako daude kulturako funtzionarioak, bestela?

Iritsi zen bigarren bilera. Arratsaldean egin zen, Lakua basamortua baino hustuago zegoela. Berrikuntza bitxi batekin: arauak bileretan bost epaimahaikideek eta idazkariak bakarrik har dezaketela parte esaten dute



argi. Orduko bilera hartan, ordea, gizon dotore eta handi bat –zazpigarren gizona– gehitu zen bilerara. Nik ez nuen ezagutzen –beste administrazio baten menpeko nafar bat naiz, badakizue–, baina, ikusirik inork ez zuela txintik esaten, neu ere isildu nintzen, hau ez duk atezaina izango, edo horrelako zerbait pentsatuz. Beste gorabehera bat izan zen: epaimahaikideetako batek huts egin zuen, lan-kontuak zirela medio, bere botoak korreo elektronikoaren bidez egingo zituela esanez.

Finalistak aukeratzeko prozedura finkatu zen: epaimahaikideetako bakoitzak bost boto emango zituen, aurretik aukeratutako hogeita bost-hogeita hamar liburuen artean, eta bakarrik hiru boto, gutxienez, lortzen zituzten liburuek egingo zuten aurrera. Horrela espero zen hiru, bost, gehienez sei bat liburu finalista izatea.

Botoa eman genuen, bakoitzak bost libururen izena ipiniz paper banatan, eta falta zen epaimahaikideak e-postaz. Nire harridurarako, zazpigarren gizonak hartu zituen paper

guztiak, eta botoak irakurri zituen. Ez idazkariak ez inork egin zuen protestarik. Bueno, bueno, pentsatu nuen nik nire kautan. Behar ziren eragiketarik egin, eta idazkariak emaitzak kantatu zituen: honelako, horrelako eta halako, honenbeste, horrenbeste eta hainbeste boto. Bost liburu ziren hiru botoen muga gainditutakoak. Kuriosidade moduan, bazegoen I.F. (Itzultzaile Famatu) dei dezakegun itzultzaile baten itzulpena horien artean. Nire harridura eta ezin sinetsia gora zihoazen.

Nire aldetik, eta bi bileren artean, hitz eginda nengoen beste bi epaimahaikiderek, honelako kasuetan ohi denez, beren gustuak eta beren asmoak tanteatzeko. Biek argi esan zidaten haiek ez zutela pentsatzen I.F.ri boto ematerik. Nik ere ez. Arrazoia zen, batez ere, I.F. delakoak aspaldi ez zela jaso zuela erabakitzen ari ginen sari hori bera. Orduan, nola zen posible I.F.k hiru boto edukitzea? Niri gauza bat esan, eta gero beste bat egin ote zuten? Ez zegoen beste aukerarik. Edo bai?



Idazkariak emaitzak irakurri eta gero, jakinarazi zigun hurrengo egunean finalisten zerrenda igorriko zuela prentsara, eta horrenbestez irailan egingo zen azken bileran, irabazlea izendatzeko, ikusiko genuela elkar. Altxatzen hasi zen, bilera bukatutzat emanda. Baina John Hustonen pelikula hartako ateraldi famatua parafraseatuz: ez zaitetz inoiz epaimahaikide batez fio; gutxien espero denean, literaturaren alde atera daiteke-eta. Alegia, une horretan, ikusirik inork ez zuela deus esaten, zuhurtziak eskatzen duenaren aurka, ahots bat altxatu zen, I.F.ri nork eman zion botoa galdezka. Zuk eman diozu? Eeeez. Eta zuk? Eeeez. Nik ere ez. Orduan nola da posible I.F.k hiru boto edukitzea? Berritseri ginen, zazpigarren gizonak eta idazkariak paperak erreparatu zituzten, eta deskubritu zen kontaketa gaizki egina zegoela, I.F.k bi boto baizik ez zituelako, eta beraz, kanpoan geratu behar zela. Hala aitortu zuten zazpigarren gizonak eta idazkariak, ez tul txiki eta desenkusazko irriñoen artean, ez egitekoren bat egiten harrapatu dituzten bi ume bihurri bailiran. Gero jakin ahal izan nuen, edo hala esan zidaten behintzat, bileran sartu zen polizoia, zazpigarren gizona, kulturako funtzionarioa zela, organigraman oso goikoa, eta I.F.ren adiskide mina.

Ez dela sinesteko modukoa? Nik horixe pentsatu nuen une hartan. Baina hau guztia ez da entzundako zerbait, neronek ikusia baizik.

Baina arazoak ez ziren hor bukatu. Handik bi egunetara edo, idazkariaren e-mail bat jaso genuen. Gaizki disimulatutako higuinaz, jakinarazi zigun lau finalistetako batek ez zuela izenpetu nahi izan finalista izateko izenpetu behar zuten papera. Eta, askoz okerrago zena, gaia prentsara filtratu zela. Honek e-mail trukaketa gogorrerako bidea ekarri zuen. Gure artean bi jarrera zeuden, gutxi gora behera: baten arabera, finalista kanporatu eta kitto, horixe zen egin behar zena; bestearen arabera, bai, finalista kanporatu behar zen –arauak garbiak zirelako puntu horri zegokionez–, baina beharrezkoa zen arauak aldatzea –hurrengo baterako edo–, finalistak papera ez izenpetzeko eskubide osoa zeukalakoan. Kanpotik huskeria bat dirudi igual, baina ez da, behintzat honelako gauzetan aritzen denarentzat.

Posta elektronikoaren trukaketa ez ezik, gaiak bi orduko edo gehiagoko eztabaida gogorrerako eman zuten azken bileran. Bitxia da humanoon gaitasuna argudioak bihurtzeko, eta ia deus ez den tokian egiazko zalaparta bat antolatzeko. Ez sinestekoa, zer ahul garen presiorik txikiaren mende gaudenean. Ikaratzekoa, zer

ahalegin egin behar den kontzientzia justua uste denari eusteko, baita erlatiboki huskeria bat den hau bezalako gai batean ere. Nazkatzekoa, nola kutsatzen eta kakazten den gure egoera partikularrak ukitzen duen guztia.

Gero, irabazlea, ordu erdi laburrean erabaki zen. Epaimahaikideetako batek, hasi baino lehen, aitortu zuen denboraz gaizki ibili eta ez zeukala iritzi oso garbirik ebatzi behar genuen aferari buruz. Zinez, horrelako gorabeherak bizi izandako epaimahai bateko kide batek hori braust aitortzen dizunean, zer ondorio atera daiteke... Horrek ez zion pentsarazi, baina, bozketan parte hartzeko eskubiderik ez zuenik, edo bere iritzia aitortutako gabezia horren arabera balioetsi behar zenik. Honen guztiaren ondoren aise ulertuko denez, apur bat kritiko agertu ginenon hautagaiak ez zuen aukerarik, ezin zuen izan. Eta gainera argitaletxe jakin hartan publikatu izanak ere ez zion laguntzen, mundu guztiak dakielako argitaletxe pribatu batek ez duela inoiz Euskadi Saria irabazten, itzulpen alorrean, saria Jaurlaritzak berak diruz hornitzen duen “Literatura Unibertsala” bildumako batentzat izan ohi delako.

Eta hala ere itzulpen on batek irabazi zuen. Onena? Bueno, hori... Goi mailakoak ziren sei-zazpien artekoa bai, behintzat. Gainera, zer da onena

itzulpengintzan? Zer saritu behar da, itzulpenaren bikaintasuna, ala zailtasuna, ala emaitzaren dirdira? (hirurak ez direlako zertan bat etorri) Jatorrizko idazlearen fama, ala garrantzia, ala itzulitako obra ‘kanonikoa’ izatea? Itzultzailearen dedikazioa edo ibilbidea? Unean uneko kultur-egokitasuna?... (eta hemen irakurleak idatz bitza gogoratzen zaizkion gainerako balizko irizpideak). Baina, zinez, zer da honelako sari batean saritu behar dena?

Hau guztia kontatzen dudala, badakit edozeinek orain arte isilik egon izana aurpegiatzen ahal didala. Ni ere konplize izan naitzela, alegia. Egia da. Eta beste norbaitek pentsa dezake ia zertara datorren orain hiru urteko kontuak astintzen hastea. Edo nik esandakoak ez duela, Saria bere osoan hartuta, deus frogatzen. Edo, txarreanean, honek guztiak denok dakiguna baina isiltzen duguna baizik ez duela frogatzen.

Nik nire aldetik haxe baino ez dut esan nahi: berdin zaidala kulturaren nork agintzen duen, literaturan eragina duten erabakiak nork hartzen dituen, ezker edo eskuin, espainol, euskaldun edo vasco. Eta haxe baino ez eskatu: ez dadila izan forajido bat, behintzat.

Euzkadi merezi zuen

(Oharra: ondorengo lerroak ez doaz, eta ez dute joan nahi, idazlearen egitekoa duintasunez betetzen saiatzen ari direnen aurka, saridun izan edo ez).

Gombrowicz idazle poloniarri, behin, kazetari batek haxe aurpegiatu zion: Aingira bezain labainkorra zara! Eta idazleak erantzun: Ez, ni ez naiz labainkorra. Literatura da labainkorra. Zer gertatuko litzaioke aingirari, harrapatuko balute? Jan egingo luketela. Literaturak, aingirak bezala, bakarrik lortuko du bizirik irautea ihes egitea lortzen badu.

Aipuaz gogoratu nintzen “Sua nahi, Mr. Churchill” irakurtzen bukatu (lehen aldiz irakurtzen bukatu), eta Izagirre amurruin bat bezalako delatentsatzen ari nintzela konturatu nintzenean.

Baliteke inori ez interesatzea, egun, Ingalaterrak 36ko gerran erakutsi zuen neutraltasun faltsuaz gogoratzea. Gero bere buruaren aurka irauli zen ustezko neutraltasunaz (sua nahi...?). Inori ez, ez eta, ikusten denez, neutraltasun faltsu horren biktima zuzenak izan ziren askoren seme-alabei ere. Baina behintzat aitortuko beharko lukete, batere literaturazale balira, Cecilia Boltonez behin eta berriz galdetzen duen soinu-jotzailearen irudiaren dotorezia jostaria, edo Londonen gainean erortzen ziren

bonben azpian soinua jotzeari uzten ez dion musikariaren irudi surrealisten edertasuna. Aitortu beharko luketen bezala idazlegai baten mendeku dorpean ezkututzen dena azaleratu nahi izatean datzan espazioaren esku-zabaltasuna. Eta beste hainbat.

Nire ustez inork ez du euskaraz arakatu (eta bada adibide ederrik, badenez! Eta ez edozeinek idatziak!) haurtzaro-nerabegarotik gaztetasun-heldutasunera doan tarte lauso, eder, ilun, gordin, xamur eta mingarri hori Izagirrek bezain ongi, liburu honetako Prasadun artekoa eta Vladimir izeneko ipuinen bidez. Eta munduko literaturan ere ez hainbeste. Mark Twain bat, esaterako. Dylan Thomas, agian. Celati, beste estilo batean (hirurak modernismo sozialista deituriko korrante literarioaren adibide peto-petoak, aski ezaguna denez). Zer pentsatu, orduan, Vladimir horretan panfleto bat baizik ikusi ez omen duten kritikariei buruz, espezialistei buruz, sariemailei buruz? Amsterdam izenekoan bada gure kontradikzio guztien –politikoak, sexualak, linguistikoak, ekonomikoak, sozialak...– bilduma bat bezalako den portuko makinistaren pertsonaia. Ezer bada, humanoa. Filiaziorik suposatu behar al diogu bai Aitzol, bai bere aurka doazen langileak ere bere tamainan uzten dituen ipuinaren (Martiria) egileari? Zer pentsatu, orduan, Izagirrearen liburuan pertsonaia zurrin eta kontradikziorik gabeak, planoak, determinismoak joak baizik ikusi ez dituztenei buruz? Zer pentsatu, esaldi eginez, arinkeriez eta topikoz jositako berbak idatzi eta esan dituztenei buruz? Niri hiru erantzun baizik ez zaizkit bururatzen, zein baino zein lotsagarriagoa: ez dute liburua irakurri, ez dira gauza liburua ulertzeko, edo literaturarekin zerikusirik ez duen zerbait ordainarazten ari zaizkio. Nola harritu, beraz, Sua nahi zeharkatzen duten pertsonaiengan Liverpool, Amsterdam edo beste edozein porturako ametsa behin eta berriz pizten dela ikustean.

Sua nahi Mr. Churchillek gure herriaren beste ikuspegi bat ekarri digu, ezagutzen ez genuena; beste aire bat, beste usain bat, beste kolore bat. Garabien uherra, txatarra ustela,



eskuetan itsatsita geratzen den arrain-usaina. Gaita-soinua, haurren irria, gizon-emakumeen izerdia. Eta horri guztiari gorputza ematen zion gizartearen nolakoaren berri. Bere kontraesan eta argi-ilunekin. Urte batzuk barru besteok oraindik geureganatzen arituko garen lorpen formalekin, eta askok sekula erdietsiko ez dugun hizkera literarioaren mailarekin.

Orduan, zer da barkatzen ez dena? Artificio literarioaren erabilera? Artificioari esker, artista egia lotsagarri hurbiltzen zaie, esaten zuen Gombrowiczek, lehen aipatutako elkarrizketa berean. Izagirrek ez ditu sekula bere egia ematen, alde aurretik ofizioaren tresneriaz landu ez baditu, hori egia da. Nik ez dakit hainbesterako den, baina susmatzen dut idazleak uste duela, hain zuzen, ez duela horretarako eskubiderik, horretan datzala bere eginkizunaren justifikazioa, bere artearen puntu gorena: maila estetiko bat ematea bere oroitzapenari, bere pertzepzio sozial, intimo, politikoei (zergatik ez politikoei ere?), erantzun oso edo oso-nahi batean artikulatzeraino. Are, maila estetiko emate hori arazo etiko bihurtu zaiola. Ez al zen hori idazle handien marka?

Orduan, zer da hau, ofizioa ez diogula barkatzen?

Ofizioa ez diogula barkatzen. Ofizioa ez diogula barkatzen. Esaldi honek oihartzun bezalako bat egiten du nire baitan. Eta ni, paperak zirriborrotzen ibiltzen naizen hau, eta paperak zirriborrotzen ibiltzen naizelako, noski, terrorezko eta higuinezko ikara batek harrapatzen nau goibehe. Ofizioa ez diogula barkatzen. Esaldiak konpreniaraziko dio irakurleari, hala espero behintzat, noraino ez den anekdotikoa, ez den pertsonala, adiskideen artekoa, hemen ebazten den kontua. Ni testuez ari naiz, ez Izagirrez. Literaturaz ari naiz, ez pertsonez. Ni irakurle bat naiz. Baliteke Izagirrek bizitzako alderdi guztietan arrazoi onik ez edukitzea, ezertan ere; baina arrazoi literario onik ez du falta. Batzuk ez bide dira konturatu, baina liburu honen kariatz esan eta idatzi dituztenekin, beren buruaren

erretrato perfektua osatu dute. Kalifikatibo batzuk neuzkan idatzita esaldi honek betetzen duen toki berean, baina ezkututuko dizkiot irakurleari, itsusiegiak direlako argitaratuta ikusteko, eta ez dudalako paper hau zikindu nahi.

Eta txarren-txarrena da egilea bera, eta horrekin batera denok, ateratzen garelako galtzaile, gauzen egoera honek ezinezko bihurtzen duelako Sua nahi, Mr. Churchill liburuaren egiazko kritika literario bat –zer kritikatu baduelako, noski–; egileari berari, eta horrekin batera irakurle eta literaturzale guztiei, gure unibertso literario txiki eta hala ere eder

hau osatuago, aberatsago eta ederrago egiten lagunduko ligukeen kritika literario baten posibilitatea ebasten zaigulako. Euzkadi merezi zuen. Euzkadi merezi genuen.

Zeren, literaturaren aitzakian beste zerbait epaitzen ari denean, ofizioa denean barkatzen ez dena, plan to egiteko garaia iritsi dela garbi geratzen baita. Ez gaitzaten tronparazi beren baraja markatuekin, uneko egokieraren arabera aldatzen dituzten arautegiekin, botoak kontatzean egiten dituzten hutsekin.

Planto egin, baraja zaharra puskatu eta berria eskatu.

